

3. FUNTSEZKO SOZIETATEAK

- **Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?**

4 bazkide izango gara (Ane, Marta, Leire eta Nerea). Guk aurreztuta dugun diruarekin hasiko gara enpresa aurrera eramaten. Gurasoen laguntza ere jasoko dugu hasieran, diru kopuru batekin lagunduko baitute, beraien ere gure egitasmoan parte hartuz.

Hornitzaileei dagokionez, Anek biltegia mantentzeko lokala utziko digu. Denon artean, hainbat josteko makina (4) eramango ditugu lokalera guk galtza bikoitzak sortzeko. Bakeroak, bigarren eskuko dendetan edo merkatu txikietan erosiko ditugu, eta barruko geruza eta bestelako materialak (haria, etab.) mertzeriatan erosiko ditugu.

- **Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?**

Bazkideak oso garrantzitsuak dira guretzako. Izan ere, beraien ekarpena ezinbestekoa izango da gure enpresa aurrera eramateko. Batetik, diru kopuru bat jartzen dutelako eta, bestetik, jarduera aurrera eramateko baliabide (josteko makinak, biltegia, 2. eskuko herriko dendak, mertzeria...) zehatz nahiz kalitate onekoak ditugulako.

